

Tokiko ekoizpenaren aldeko konpromisoa indartu du

**EROSKI-K %8 HANDITU ZITUEN
NEKAZARITZAKO ELIKAGAI PRODUKTUEN
EROSKETAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
2020AN**

- EROSKI 1.700 hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da lanean erkidegoan, eta 740 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiten dizkie urtero
- EROSKIk lehen sektorearen iraunkortasunean laguntzen du, eta hitzarmenak ditu EAEko nekazaritzako elikagaien arloan diharduten elkarte ugariarekin
- Nekazari eta abeltzain txikiei lagundu die beren ekoizpen sailak saltzen, COVID-19ak eragindako osasun alerta dela-eta galduak baitzituzten beren ohiko salmenta kanalak
- EROSKIren sare komertziala erkidegoan osatzen dute 406 saltokik eta sei plataforma logistikok

Elorrio (Bizkaia), 2021eko apirilaren 26a.- [EROSKI](#)k %8 igo zituen nekazaritzako tokiko elikagai ekoizle txikiei egiten dizkien erosketak iaz, eta 205 milioi eurotara iritsi zen. Kooperatibaren Zurekin eredu komertzialak sendo egiten du tokiko janariaren alde, eta hala, ehun produktibo askotarikoa ari da bultzatzen, giltzarrizkoa delako sektorearen iraunkortasunerako eta ingurune bakoitzeko ekonomiarako, kulturarako eta paisaiarako.

EAEen nekazaritzako elikagaien arloan diharduten 300 ekoizle txiki ingururekin dihardu EROSKI; alde horretatik, haien produktuek leku nabarmenduak dituzte bere dendetan, batez ere sasoiaren sasoiko frutek, berdurek eta barazkiek. Tokiko ekonomiaren alde inguruneke ekoizleekin egiteko apustu horretan, hitzarmenak eginak ditu, hala berean, sektoreko erakundeekin, nekazari kooperatibekin eta nekazaritzako elikagaien arloko hemengo elkarteekin. Hitzarmen horien xedea da osasun krisi honetan nekazari eta abeltzain txikiei beren ekoizpen sailak merkaturatzen laguntzea, ohiko salmenta kanalak galdu baitzituzten (errestaurazioa, kolektiboak...) COVID-19aren osasun alertatetik. Horretarako, lehen sektoreari laguntzeko lankidetzaren sistema bat garatu du, haien soberakinak bere dendetan saltzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Edariena da gogor jo duen sektoreetako bat, batez ere ostalaritzaren kanala itxita egon delako. Kolaboraziorik azpimarragarrienetako batzuk ditu [Bizkaiko Txakolina Jatorri Izenaren Kontseilu Erregulatzalearekin](#) (Bizkaian txakolinaren salmenta sustatzeko) eta Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin (Euskal Autonomia Erkidegoan eta hortik kanpo kalitate ziurtagiria duen eta bakarrik hemengo sagarrarekin eginda dagoen sagardoa saltzeko). Era berean, nabarmentzekoa da Arabako Errioxako Upategien Elkartearekin duen lankidetzaren hitzarmena, Arabako Errioxako ardoa garatzeko eta sustatzeko. Lankidetzaren horrek gainera Arabako Errioxako ardoaren salmentak igo ditu %30.

[Udapa Sozietate Kooperatiboaren](#) bitartez, berriz, Arabako patata saltzen du EROSKI, Euskal Baseri jatorri bermearen markarekin. Gainera, lankidetzaren hitzarmenak ditu [HAZI Fundazioarekin](#) (Eusko Labelen erakunde ziurtatzailea) eta [Harakai kooperatibarekin](#), Euskal Okela AGBak egiaztatutako behi haragiaren sustapena eta komertzializazioa bultzatzeko *EROSKI Natur Euskal Okela* marka propioarekin.

Barazkien kategoriak ere igo egin ditu bere salmentak Euskal Autonomia Erkidegoan. %20 igo da, batez ere tokiko hamasei ekoizlerekin jardun delako *EROSKI Tokiko Barazkien Planaren bitartez*. 2019an abiatu zuen proiektua, eta asmoa izan da sektorea artikulatzea eta barazki motak ugaritzea eta, hala, bezeroari ingurunerik hurbilenean ekoiztutako produktua eskura jartzea.

"Urtero indartzen dugu tokian tokiko ekoizleen aldeko apustua. Hori ikus daiteke, euskal ekoizleei egindako erosketak handituz doazelako. Hala, hurbileko produktuen eta sasoiko freskoen eskaintza zabala bihurtu da gure denden bereizgarri printzipalenetako bat. Gure tokiko hornitzaileekin lankidetzaren estu bat bilatzen dugu, luzera begirako hitzarmenak lortzeko eta hala eskualdeko nekazaritzaren eta sozioekonomiaren garapenean laguntzeko", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Prentsa oharra

EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan

EROSKI hemengo 1.700 hornitzailerekin baino gehiagorekin aritzen da. Urtero 740 milioi euro baino gehiago erosten du erkidegoan, eta tokiko 9.000 produktu inguru saltzen ditu dendetan.

EROSKIk 406 saltoki ditu EAEn; besteak beste, hipermerkatuak eta supermerkatuak, gasolindegia, optikak, bidaia agentziak eta [Forum Sport](#) eta [Dooers](#) dendak, baita [online](#) supermerkatua ere. Gainera, sei plataforma logistiko ditu, guztira 118.000 metro koadroko azalera hartzen dutenak.

Kooperatibako langileak 10.000 baino gehiago dira autonomia erkidegoan. EROSKI Cluben fidelizazio programak, berriz, 848.000 bezero-bazkide inguru ditu autonomia erkidego honetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)